

Txiolari euskaldunak

KOMUNITATE TRINKO ETA AKTIBOA

Euskal txiolariak euskaraz ari dira Twitterren, hizkuntza horretan egitea naturala zaielako. Euskaraz aritzeko arrazoi nagusia da, baina ez bakarria. Hizkuntzarekiko atxikimendua dute txiolariok eta euskara ikusgarri egitea nahi dute. Ondorio hori eta beste batzuk ateratu ditu Simón Setién Echeniquek master amaierako *Euskara eta Twitter* lanean.



Onintza Irureta Azkune

@oirureta

ARGAZKIA: DANI BLANCO



Twitterrek hasieran izaera soziala zuen eta gaur egun berriz informazio izaera hartu du. Nolabait esatearren, espezializatu egin da sare sozial hori eta erabiltzaileek informazioa jasotzeko eta elkarbanatzeko erabiltzen dute. Txiolari euskaldunek gauza bera erantzun diote Setién, haien helburu nagusia informazioa dela. Besterik da ondoriozta dezagula nahi duten informazioa euskaraz aurkitzen eta elkarbanatzen moldatzen direla. Hau da, euskararen erabilera ez da arrazoi nagusi bat kontu bat jarraitzerako orduan.

Euskal txiolariak euskaraz ari dira ordea Twitterren (baita beste hainbat hizkuntzatan ere, eleanitzak baitira), eta Setiének galdetu die ea zergatik egiten duten euskaraz. Erantzun nagusia da euskaraz ari direla naturala egiten zaielako. Alabaina, ez da ematen duten arrazoi bakarria, hizkuntzarekiko atxikimendua, harrotasuna eta hizkuntzari ikusgarritasuna ematea ere aipatu dituzte.

Kalean, gizartean, gertatzen den bezala ezagutzak ez dakar erabilera automatikoki sare sozialetan. Euskara natural

ateratzen zaiela diote euskal txiolariak eta euskararen aldeko konpromisoagatik ere egiten dute. Euskaraz gutxi edo oso gutxi egiten dutenak ere badira, ordea.

Setiénen ustez, txiolarien euskal komunitate trinko eta aktiboa dagoela esan daiteke, nahiz eta egia den azken urteotan erabiltzaile aktibo kopuruak behera egin duela. Setiének azpimarratu du komunitate hori ikusgarri egiten asko lagundu dutela Umap eta Indigenous tweets webguneek. Code Syntaxek garatutako Umap tresnak euskaraz ari diren txiolarien datuak ematen ditu. 2016ko datuen arabera, 15.000 txiolari ari dira euskaraz. Indigenous tweets webgunea AEBetako Informatikako irakasle batek sortu zuen, Kevin Scannellek. 170 hizkuntza gutxiagotu aukeratu eta Twitterreko mugimenduen berri ematen du. Saillkapen horretan euskara aurrena dago.

342 galdetegi eta sei elkarrizketa

Setiének argi utzi nahi izan du *Euskara eta Twitter* lanak ez duela euskal komunitate osoaren argazki zehatza azaltzen.

342 erabiltzaileari galdetegia pasa die. 112 emakumeak ziren, 227 gizonak eta hiru beste genero batekoak. Partaideen %72,5ak euskara du lehen hizkuntza, %42k gaztelania, eta %0,6k frantsesa. Erabiltzaileen %49,4k adierazi du Twitterren euskara erabiltzen duela %75 eta 100 bitartean; %28,4k %50-75 bitartean; eta %12k %15-50 bitartean. Bestalde, %57k adierazi du bizitzako esparru guztietan erabiltzen duela euskara.

Galdetegiaz gain elkarrizketa erabili du Setiének informazioa lortzeko. Sei elkarrizketa egin ditu, lau gizonezkori eta bi emakumezkori. 16 eta 54 urte artekoak denak. Hiru irizpide hartu ditu seiak aukeratzeko: jarraitzaile kopurua, euskararen erabilera eta txio kopurua.

Euskara eta Twitter Eleaniztasuna eta Hezkuntza master amaierako lana ekainean bukatu zuen Setiének eta jada sarean dago (<http://bit.ly/2xddq4m>). Azpimarratu du Twitter eta euskara edo Twitter eta hizkuntza gutxiagotuak lantzen dituen ikerketa akademikorik apenas aurkitu duela eta gai horiek sozializatzea garrantzitsua dela. ■